

Hamar urte igaro dira Ekonomiaz aldizkariak bere ibilbidearen 25. urteurrena ospatzeko zenbaki berezia argitaratu zuenetik. Zenbaki berezi hura Atzeraldi Handiaren ataritan egin zen; bertan, aztertzen zen zer bilakaera izan zuen euskal ekonomiak azken hogeita bost urteetan, eta zein izan ziren gure herriaren lehen eraldaketa handiaren arrakastaren gakoak, une hartako lehentasunak identifikatzeko begirada etorkizuneko arrakastan jarrita. Arrakasta hura, alabaina, ez zen lortuko iraganeko politikak errepikatuz, baizik eta agerian jarritz gure aurrean sumatzen genituen gako eta ibilbide berriak.

Horretarako, zenbaki berezi hark ikuspegi integral batetik aztertu zuen garapena, giza garapen jasangarriaren ikuspegitik; artikulu-bilduma baten bidez, ekoizpen-ehunaren eraldaketan, ongizate-mailan eta gizarte-kohesioan jartzen zuen begirada, eta ingurune fisikoan.

Hamar urte geroago, beharrezkotzat jo dugu garai hartan politika publikoetarako egin ziren azterketa, diagnostikoa eta proposamenak errepikatzea. Izan ere, ahalegin hura ezinbestekoa izan zen, 2008ko Atzeraldi Handiak munduko ekonomia astindu baitzuen, eta bost urtez markatu gurea; gero, hazkundearen bidea berreskuratzen joan ginen, eta 2016rako 2008ko BPGd-a berreskuratu genuen, nahiz eta 20.000 enplegu gutxiagorekin. 2018ra arte itxaron behar izan genuen Euskal Gobernuaren 2008ko aurrekontu-maila lortzeko; hortaz, galdutako hamarkadatzat jo dezakegu Ekonomiaz aldizkariaren zenbaki berezi hartatik igarotako 10 urteko aldi hori.

Izan ere, Euskadin, eta Espainian ere bai, nahiz eta atzeratuxeago, krisi aurreko jardueraren %100era iritsi zen aldi hartan, baina Estatu Batuetan, esaterako, %13 igo zen BPGd-a, batez ere ez zutelako jasan bigarren atzeraldia, 2012koa, Europako atzeraldia deitu izan dena; Alemanian, berriz, % 8, eta Austrian, %5, besteak beste haien ekonomiek hazkunde-erritmo handiagoa mantendu ahal izan zutelako, esportazio-mailari esker askotan, eta abantailak zituztelako kostu unitarioetan. Aldi honen beste ezaugarri bat da lehiakortasunaren susperraldia, soldata-deflazioaren eta lan-kostu unitarioen jaitsieraren ondorioz gertatu zena. Hala, enpleguaren eta produktibitatearen bilakaerari esker, Euskadiko biztanleko BPGd-a % 2 eta % 3 artean hazi zen, eta EB-15ekoa, berriz, % 1 eta % 2 artean. Hori dela eta, euskal ekonomiak konbergentzia-bidea berreskuratu du, Atzeraldi Handian zehar galdu zuena erresilientzia txikiagoa erakutsi zuelako.¹ Baina BPGd-aren maila erreperatuagatik,

¹ Kontuan hartuta Eustatek eta Eurostatek argitaratutako datu ofizialak, EAeko biztanle bakoitzeko BPGd-a, Espainiako EAPrekin neurtzen denean, EB-15ekoa baino %12 gehiago da, eta EB-28koa baino %20 gehiago. Baina EB-15eko EAPrekin neurtzen bada, eremu horretakoa baino pittin bat baxuagoa da

Euskadik ez du lortu Europako eskualdeen rankinean mantentzea BPGd-a Eros Ahalmenaren Parekotasunean (EAP) izateari dagokionez, 43. postuan egotetik 53. enean egotera pasa baita (guztira 281 eskualde dira). Bilakaera horrek galera ekarri du, halaber, soldatek errentan duten partaidetzari dagokionez: 2009 eta 2017ren artean, %63tik %60ra igaro zen; 1980 urtean, ordea, portzentaje hori %70ekoa zen (urte horretan ireki zen orain ixtera doala ematen duen globalizazio aldia).

Izan ere, Europako Batzordeak honela definitu zuen agertoki berri hori: «hazkunde xumea erronka garaietan»; ELGak, berriz, «hazkunde txikiko tranpa» deitu zuen zuzenean, non munduko ekonomia ezkatututa egongo litzatekeen nazioarteko inbertsioa erortzeagatik eta merkataritza uzkuratzeagatik honako arrazoi hauek direla medio: Brexit-a, merkataritza-gerra eta globalizazioaren atzeraldia, Txinako ekonomiaren dezelerazioa eta haren hazkunde-ereduaren aldaketa (barne-eskarirantz bideratu zuen) eta abar.

Egoera horren aurrean, beharrezkoa zen Ekonomiaz aldizkariaren zenbaki berezian 25. urteurrena ospatzeko argitaratutako lana eguneratzea, EAEko erronka berriak argitzeko, begirada 2030. urtean jarrita.

Hemen jasotako ekarpenak, 2019. urtean zehar landuak, perspektiba horrekin landu ziren. Alabaina, 2020an COVID-19 pandemiak sortutako krisi sanitarioak eten egin du aurreikusitako susperraldi-bidea, eta atzean utzi ditu hazkunde-tasa positiboak eta enplegu-errekuperazioak, ondoz ondoko 13 eta 11 hiruhilekoetan emandakoak, hurrenez hurren. Hankaz gora jarri du, halaber, zenbaki berezi honen argitalpena eta aurkezpena, eta hamar urteko aldia itxi du, Atzeraldi Handiarekin hasi eta magnitude historikoko pandemiarekin amaitzen dena. Hamar urte horiek kapitalismo finantzarizatuaren eta ekonomia errearen artean igaro dira, non publikoaren balioa erreuperatu baita, aurre eginez *laissez faire* joeraren aldeko asaldurari. Pandemiari aurre egiteko eta sistema sanitarioak ez erortzeko, konfinamenduneurriak ezarri dira planeta osoaren luze-zabalean, eta horrek aurrekaririk gabeko krisia eragin du, bake-garaietan inoiz ezagutu ez bezala erori baita jarduera ekonomikoa, eta, eskaintza eta eskaera jaitsi direnez, ralentian geratu dira ekonomiak.

Zorionez, EBZk azkar erantzun du oraingoan –Atzeraldi Handian ez bezala, lau urte pasa baitziren erreakzionatzeko–, eta aktiboak erosteko programa irmo bat ezarri du; horri esker, kontrolpean mantendu dira zorpetze-maila handiagoak behar dituzten herrialdeen arrisku-primak.

EBk ere, jakitun denez nolako hutsegitea izan zen Atzeraldi Handitik irteteko ezarritako gehiegizko austeritatea, zerga-politika kontraziklikoa bultzatu du pandemiaren ondorio ekonomikoei aurre egiteko. Hala, EBk, ekonomia bultzatzeko

(%3 baxuagoa). Nolanahi ere, nahiz eta euskal ekonomiak Europar Batasunak baino larriago nozitu Atzeraldi Handia, geroztik erreuperatu egin da, eta 2018an 97ko mailara iritsi zen. Konbergentziara itzultzearen gakoak dira lehen aipatu ditugun hazkunde-tasa jarraituak (%2 eta %3ren artekoak); datu horiek EB-15ean lortutako tasen gainetik daude, zalantzarik gabe (%1 eta %2, eta %1,4 2018an).

erantzun azkarrak eman nahian, denbora-esparru erlatibo bat ezarri zuen, estatuek osorik erabil zezaten estatu-laguntzei buruzko arauetan aurreikusitako malgutasuna; beste alde batetik, salbagueardako klausula aplikatu zuen, Batasuneko herrialdeek aukera izan zezaten Egonkortasunaren eta Hazkundearen Ituneko defizit eta zor publikoaren helburuetatik aldentzeko.

Itun hori, bestalde, errebisio-fasean zegoen 2019an; izan ere, Europako Zerga Kontseiluak Europar Batasuneko zerga-arauak baloratzeko txostenean proposatu zuen, hazkundera bultzatzeko betiere, inbertsioetarako pizgarriak indartzea Urrezko Erregelaren aldaera berri bat sartuz, aprobetxatuz, gainera, interes-tipo baxuak zeudela.

Gainera, EBZren erantzun azkarrarekin eta estatu kideek politika kontraziklikoekin jardun dezaten EBk gastu-erregelak erlaxatzearekin batera, EBk berak, bigarren fase batean, susperraldi- eta erresilientzia-plan bat bideratu eta bultzatu du, zorraren mutualizazio berri baten bidez. Plan horren helburua da Europako ekonomia suspertzea eta sustatzea, eta baliabideak ekonomiaren eraldaketara bideratzea, Europak posizio hobea izan dezan gaur egun planeta-mailan planteatzen diren erronkei erantzuteko (aldaketa klimatikoa, eraldaketa energetikoa edo eraldaketa digitala). Hori guztia begirada jarriz jaruderaren susperraldian, baina baita oparotasunean ere. Izan ere, erresilientziaz dihardugunean, publikoa birbaloratu beharraz ari gara, hau da, osasuna, hezkuntza eta gizarte-kohesioko politikak indartzeaz, modu horretan arintzeko krisiarekin areagotzen diren desberdintasun sozialak; horretarako, berriz, hazkunde inklusibo sistemikoa sustatu behar da, errentak birbanatzeko politikaren bidez.

Gako horiek, susperraldia eta erresilientzia, hazkunde inklusiboaren eta oparotasunaren bidean aurrera egiteko inbertsio-palanka gisa erabilita, gaur egungo erronkei erantzun nahi zaie (eraldaketa energetikoa eta ekologikoa, eraldaketa digitala eta, aldi berean, sistemaren erresilientzia eta ezberdintasunen aurkako borroka); izan ere, gako horiek giza garapen jasangarriaren² eredia sakontzen dute, hau da, Ekonomiaz aldizkariaren zenbaki berezi honetan jorratzen diren gaiak aukeratzeko erreferentziatzat hartu genuen eredia.

Horrekin guztiarekin, eta egoera berri honi erantzun nahian, Ekonomiaz aldizkariaren 35. urteurrena bost bloketan egituratu da. Lehenengo artikuluko-blokean euskal ekonomiaren diagnostiko zabala eta finantza sektorearen portaera Atzeraldi Handiaren ondoren jasotzen da, eta pandemiaren aurretik zituen erronkak aipatzen

² Giza Garapen Jasangarriko Estrategiaz aritzean, onartu behar da errenta sortzea eta banatzea binomioa interdependentea dela. Ezin da ulertu prozesu lineal bat bezala, non aberastasuna sortu, eta, gero, banatu egingo litzatekeen; izan ere, aberastasunaren sorrera banaketaren mende dago, aintzat hartuta hala banaketa primarioa (lan-errenten bidezkoa batez ere) nola banaketa sekundarioa (prestazio ekonomikoen bidezkoa –dirulaguntzak eta laguntzak– edo zerbitzu-prestazioen bidezkoak). Bi dimentsioek zirkulu bertuosoa bat sortzen dute, elkar elikatuz positiboki, ez bakarrik justizia sozialaren aldetik, baizik eta hazkunde ekonomikoarenetik ere bai, halaxe aitortzen dutenez nazioarteko organismoek egindako azterlan anitzek (NDF, ELGA edo Munduko Bankuak).

dira, baina gaur egungo egoerak artikuluko horiek berrikustea eskatzen du, bideak apurtu egin baitira, bat-batean apurtu ere. Bigarren blokeak Gobernantzaren gaia jorratzen du, ikuspuntu publiko zein pribatutik, erronka berrietara egokitzeko beharra dela eta. Hurrengo hiru blokeak gaia antolatu dira, eta 2030erako erronkei begira landu. Hala, hirugarren blokean aipatzen da zer politika ezarri behar diren ekonomiaren erresilientzia-gaitasuna sendotzeko, eta beharrezkotzat jotzen da kalitatezko zerbitzu publikoak izatea, osasunaren, hezkuntzaren, lanaren eta gizarte-babesaren arloko premiei erantzun ahal izateko. Laugarren blokean, energia-eraldaketa ekologikoarekin lotura estuena duten politika sektorialak edo gaiak biltzen ditu, kontuan hartuta energia-eraldaketa hori hartzen dela pandemiaren ondorengo susperraldi ekonomikorako palanka gisa. Azken blokeak, berriz, euskal ekonomiaren digitalizazio-maila eta haren bilakaera sektoriala deskribatzen ditu, eta, beraz, eraldaketa digitalaren erronkarekin lotuta dago.

EKONOMIKOA

Alberto Alberdik eta **Arantza Olalde** ireki dute lehen blokea, eta zabal jorratu dute euskal ekonomia Atzeraldi Handitik izan duen ibilbidea, bai makroekonomiaren eta lehiakortasunaren ikuspegitik, bai kanpo-sektorearen, lan-merkatuaren, sektore publikoaren eta finantzaketaren ikuspegitik. Autore horiek balantze makroekonomikoa, finantzarioa eta kontu publikoena aurkeztu dute, eta krisiak eragin zituen inpaktu handietan zentratu dira (batez ere PGB-ean eta enpleguan), EBn baino askoz ere gogorragoak baitira. Bestalde, hor dirau, oraindik ere, EB15e-kiko produktibitateko arrakala historikoak, azken urteetan ahalegin handia egin den arren. Defizita eta zor publikoa handitu egin ziren, krisiaren ondorioz eta krisiari aurre egiteko, baina 2014az geroztik lehengoratzten joan dira, eta 2017an superabit txiki bat lortu zen. Zorrak % 3tik % 15era egin zuen gora, baina pikoa gaintitu, eta %12an egonkortu da. Hala ere, horrek guztiak agertoki konplikatuak utzi digu, kudeatzen zaila, non egiturazko eta azpiko determinatzaileak, hala nola gainbehera demografikoa eta zahartzea, funtsezkoak izango baitira ekonomia aktibo eta jasangarri bat mantentzeko.

Josu Ferreirok eta **Carmen Gómezek** adierazi dutenez, finantza-sektorea aurreko krisiaren eragiletako bat izan arren, oraindik ere latente dago ekonomiaren finantzarizazioaren arriskua. Desfinantzarizazio-prozesua oraindik ez da gertatu, eta, beraz, finantza-arriskuak eta arrisku makroekonomikoak presente daude; beraz, beste finantza-krisialdi sistemiko batzuk gertatzeko arriskua dago, eta ez gaude horietatik salbu.

GOBERNANTZA

Bigarren blokeak gobernantzari heltzen dio, bi alderditatik: publikoa (erakundeen artean, etika, gardentasuna, bizikidetzeta) eta pribatua (enpresaren eta lan-harremanen kontzepzio berria).

Federico Steinbergek ireki du multzoa, eta adierazi du munduko merkataritzaren errealitatea azkar ari dela aldatzen, haren gobernantza-egiturak bezala. Herri-estrategia bat planteatzeko, funtsezkoa da kanpo-ingurunea aztertzea, are gehiago aurreko ordena globala eta Europako eredia zalantzan jartzen diren une honetan, desoreka ekonomiko handiak baitaude; esaterako, globalizazioaren eta desglobalizazioaren arteko gatazkak. Testuinguru horretan, egileak munduko merkataritza deskribatzen du, eta esaten du ez dela ez hain europarra, ez hain kooperatiboa, eta lehiakortasun geoekonomikoa gero eta handiagoa dela, hau da, desordenatua eta nahasgarria dela, eta Estatu Batuek utzi egin diotela munduko merkataritzaren arauak eta antolakundeak gidatzen eta bideratzen dituen agente integratzaile eta herrialde bisagra izateari, eta nazioarteko erakunde multilateralak gero eta ahulagoak eta zalantzakoagoak direla. Horrela, EBk duen aukera bakarra da bere autonomia estrategikoa handitzea, kanpoko politika ekonomikorako dituen tresna ahaltsuak hobetzea eta, Erromako Tratatuak hitzei jarraikiz, «Batasun gero eta estuagoa» erakitzen jarraitzea.

Ekonomiaren eta moralaren arteko loturatik abiatuta, eta ikusita zer zauri sortu diren Europako herritarren artean, **Joxerramon Bengoetxe**ak Europar Batasunaren etorkizuna zehazten duten balioak hautatu ditu, hau da, giza garapen jasangarria eta gobernantza demokratikoa, bi ideia horiek adierazten baitute zer balio hartu behar diren oinarritzat ezagutzeko, aztertzeko, interpretatzeko eta jarduteko orduan. Garapen jasangarriak eta gobernantzak bizi-kalitateari eragiten diote, eta, bi kasuetan, eskualdeek eta, zehazki, Euskadik, Europako erakundeetan duten zeregin eskasari egiten dio erreferentzia egileak, eta deitoratu egiten du EBk orain arte eskualdeei buruz izan duen ikuspegia, eskualde-ordezkaritzarako foro edo espazio gutxi uzten baititu; arazo hori larriagoa da EAERen kasuan, arlo batzuetan dituen eskumenak ia eskusiboak baitira.

Bestalde, **Ander Gurrutxagak** gogoeta egin du euskal gobernantza gauzatzeko moduari buruz. Gobernantza diskurtso publikoetan agertzen da, baina praxia etengabe aldatzen diren lurraldeetan egin behar da. Horretarako, praxiak suntsipen sortzailea behar eta erabiltzen du, eta horrek zera eskatzen du: arazoa ondo definitzea, ondo ezagutzea non garatzen den, nola hedatzen den, zer dimentsio dituen eta zein diren arazoa zehaztu dezaketen eragileak, agentziak eta egoerak, eta hartzen diren erabaki berriak gauzatzeko baliabideak – batez ere instituzionalak – asmatzea.

Kevin Morganek, **Mikel Navarrok** eta **Jesús Mari Valdalisok** positiboki baloratzen dute Euskadik azken hamarkadetan izan duen gobernantza ekonomikoaren ibilbidea, gaur egun oraindik ere egiten dena. Egileek euskal ekonomiak lortutako emaitza handiak azpimarratzen dituzte, nahiz eta aditu gehienek etorkizun iluna ikusten zioten industria-sektore helduekiko zuen mendekotasunagatik eta atzerriko inbertsioak erakartzeko zuen ezintasunagatik, trantsizio ekonomikoko antzeko prozesuetan zeuden beste eskualde batzuentzat aurreikusten zen bezalaxe. Eta hori lortu da, neurri handi batean, iraganeko aktiboak erabiltzeko gaitasun kolektiboari esker,

ibilbide luze batean bideragarri izango den etorkizun ekonomiko bat berrasmatuta jarraitutasunaren eta berrikuntzaren arteko oreka mantenduz, iraganeko ondare kulturala errespetatuz eta zientziarekiko, teknologiarekiko eta berrikuntzarekiko konpromiso tinkoari eutsiz.

Azkenik, multzo honi amaiera ematen dion lanean, **Tomás Arrietak** adierazi du, behar diren ñabardura guztiekin, eragile sozial, ekonomiko, politiko eta instituzionalen artean gero eta adostasun handiagoa dagoela enpresen barruan lankidetzeta-maila handitzeko beharrari buruz; izan ere, ezinbesteko faktore estrategikoa da lehiakortasunerako, eta nahitaezko baldintza, nahiz eta ez nahikoa, enpresa-proiektuetan pertsonen inplikazioa handitzeko. Hala ere, interes hori bultzatzen jarraitu behar da, zehazten joateko. Horretarako, esparru teoriko partekatu baten definizioan lan egiteaz gain, elkarrizketa-prozesu zabalak aktibatu behar dira aldi berean, batzuen eta besteen eskubide eta interes legitimoei uko egin gabe, norgehiagoka-logika gainditzen duten negozioazioei ekiteko eta akordioak sinatzeko oinarriak ezartzeko.

ONGIZATE INKLUSIBOA ETA ERRESILIENTEA

Hirugarren blokea ongizate inklusibo eta erresilienteari, kohesio sozialari eta bizi-baldintzei buruzkoa da, eta hazkunde inklusiboaren baldintzak eta biztanleentzako bizi-baldintza egokiak bermatzeko gako analitikoak eskaintzen ditu, erreferentzia gisa hartuta errentaren banaketa, osasuna, hezkuntza, lana eta etxebizitza.

Errentaren banaketan dauden desberdintasunei dagokienez, **Ricardo Iruarrizagak** eta **José Angel Colinasek** lan analitiko zabala egin dute, eta ondorioztatu dute azken lau urteetako hazkunde indartsua eta langabeziaren jaitsiera ez direla nahikoa izan Euskadin krisiak eragindako desberdintasun-handitzeak erabat lehengoratzeko. Hala, adierazi dute ezen 2008-2018 hamarkadan, klase aberatsenen eta pobreenen arteko errenta-tartea handitzeaz gain, klase pobreenen artekoa ere handitu dela. Errentaren polarizazioaren igoera hori ez da gertatu egoera onenean daudenen bizi-maila hobetu delako, baizik eta dagoeneko pobreenak zirenak pobretzeagatik; izan ere, azken horiei dagokienez, lan-merkatuak krisialditik dakarren narriadura dago desberdintasunaren azpian, eta soldata-debaluazio orokorra.

Euskadiko osasun-sistemari buruz egindako lanean, **Ricardo Nuño-Solinisek** adierazi du biztanleriaren osasun-adierazle askok ez dutela, oro har, okerrera egin krisiarekin, eta bilakaera positiboari eutsi diotela krisi-urteetan, eta horrek islatzen duela politika horrek lehentasunezko posizioa duela Eusko Jaurlaritzarentzat. Horregatik, Atzeraldi Handiak euskal herritarren osasunean izan duen eragina mugatua izan da, igarotako denbora-tartean izan dituen ondorioei dagokienez behintzat. Inpaktu mugatu horren arrazoiak azaltzeko faktore asko daude zalantzarik gabe, baina ezin da alde batera utzi zer efektu izan duen erakundeek krisiari emandako erantzunak; izan ere, berariazko politikak gauzatu dira Gobernu Zentralaren neurrien efektua konpentsatzeko, eta bereziki azpimarratzekoa da nolako ahaleginak egin diren antolakuntzaren eraldaketan eta berrikuntza teknologikoan profil demo-

grafiko, sozial eta epidemiologikoaren aldaketaren ondorioz sortzen ari diren erronkei erantzuteko.

Javier Monzónek eta **Francisco Lunak** jorratu dute Hezkuntza atala eta adierazten dute euskal hezkuntzak egoera ona duela hamarkadetan zehar egindako ahalegin handiaren ondorioz. Egia da gure hezkuntza-sistemak bikaintasun-profila daukala, hala adierazten baitute eskolatzeko-adierazleek, promozio-ehunekoek eta graduaziotasek, baina, hala ere, erreparatuta zer eboluzio duen sistemak eta nolako bidegurutzetan aurkitzen den mundu osoan, beharrezkoa da sistemaren alderdi estrategiko batzuk (hezkuntza inklusiboa, besteak beste) berrikustea.

Javier Ramosek hamarkada honetan lan-merkatuak izan dituen aldaketa kuantitatiboak eta kualitatiboak deskribatzen ditu. Lehenengoan artean, egileak nabarmentzen du hazi egin dela enplegu gutxiago eta langabezia handiagoa duen biztanleria aktiboaren kopurua. Gizarte Segurantzako afiliazioari dagokionez, oraindik ez gara iritsi krisiaren aurretik genuen mailara; era berean, igo egin da atzeritar populazioa, eta horien artean ere jaitsi egin da okupatuen kopurua, eta igo, aktibo ez dauden edo langabezia duenena. Aldaketa kualitatiboei dagokionez, orokorren negatiboak dira: populazio okupatua esanguratsuki zahartu da, eta asko igo da iraupen luzeko langabezia kopurua, baita kontratu-txandakatzek ere; desegonkortasuna igo da kontratu mugagabeak jaitsi direlako; lanaldi partzialak igo dira, eta soldatek eroste-ahalmena galdu dute. Alde positiboan, berriz, hauek azpimarratu behar dira: igo egin da populazio aktiboaren kualifikazioa; lan-gatazkak jaitsi dira, eta hobetu egin da laneko osasuna eta segurtasuna. Azkenik, egileak azpimarratzen du lan egiteko modu berriak agertu direla, eta hori lan-merkatua eraldatzeko osagai bat dela, eta lan-harremanetarako araudi-esparru berri bat behar dela.

Mamen Garzok, **Laura Gallok** eta **Antonio Corralek** deskribatzen dute nola aldatu den etxebizitza-politika atzeraldiaren ondorioz; izan ere, egoera horretan aurrekontu publikoak asko murriztu ziren, eta horrek mugatu egin zuen populazioaren etxebizitza-premiei erantzuteko ahalmena. Horren ondorioz, aldatu da ordura arte etxebizitzak sustatzeko zegoen politika, eta beste politika bat ezarri da: gehiago zentratzen da pertsonengan eta gizarte-arloko helburuetan (gizarte-egoera ahuleko kolektiboak), alokairuaren eta birgaitzearen aldeko apustua eginez, eta etxebizitza hutsak mobilizatzeko programak bultzatuz, eta hori guztia garatzen ari den Etxebizitzaren Lege berriaren esparruan.

ERALDAKETA ENERGETIKO EKOLOGIKOA

Laugarren blokeak, Lurraldeari eta Jasangarritasunari buruzkoak, erakusten du pertsonen ikuspegitik hazkunde inklusiboa behar dela, baina, horrez gain, ingurune fisikoaren ikuspegitik hazkunde jasangarria ere behar dela. Horretarako, bloke honetan jasotzen dira: lurraldearen antolamenduaren egitekoa; jasangarritasunak dituen arazoak ingurumenaren eta ekonomia zirkularraren ikuspegitik; klima-aldaketa; azpiegitura publikoen hedapena eta mugikortasun jasangarria.

Pedro José Lozanok, Lurralde Antolamenduari (LA) buruzko artikuluan, adierazi du ezin dela modu positiboan baloratu LAG-Lurralde Antolamenduaren Gidallerroak berrikusteko prozesua hamahiru urte atzeratu izana, baina bai, ordea, horrek eztabaida eta ideia oso emankorrek ekarri izana LA-Lurralde Antolamenduaren inguruan. Herritarren parte-hartzea eta gardentasuna sustatu behar dira, baina ez plangintza honetarako bakarrik, baizik eta gainerakoetarako ere bai. Horregatik, positiboki baloratu behar da LAGen dokumentu berriak orain arte hautemandako ahuleziei buruzko autokritika bat egitea, nahiz eta autokritika hori guztiz fidagarria ez izan, ez baititu antzematen aurre egin beharreko beste arazo, omisio edo erredundantzia batzuk.

Ingurumenaren Jasangarritasunari buruzko lanean, **Alberto Ansuategik** azaltzen du nola eragin duen Atzeraldi Handiak euskal ekonomiak egin dituen ahaleginen gainean, lehiakorrago, karbono gutxiko eta baliabideen erabilera eraginkorrago izateko eraldaketa-bidean jarraitzeko egindakoak. Hainbat adierazle aztertuta, nolabaiteko baikortasunerako argudioak aurkitu ditu egileak. 2008ko Atzeraldi Handiaren ondoren, Euskadi ingurumen-politikan aurreratuen dauden herrialdeekin batera mantentzen da, eta berotegi-efektuko gasen emisioak, baliabideen kontsumoak eta hondakinen sorrerak eragindako ingurumen-arazoen erantzukide sentitzen da. Gainera, Euskadi nabarmentzen da ingurumen-jarduera ona duelako eta «desakoplamendu» nabarmena dagoelako BPGd-aren eta ingurumen-presioaren adierazleen artean (BEG, oxido nitrosoak eta partikula esekiak isurtzea).

Bloke honetako azken lana azpiegituren egoerari eta bilakaerari buruzkoa da, **José Morenok** zuzendua. Egileak dioenez, krisiak, oro har, murriztu egin du azterlan honetan sartzen diren aktibo guztietako inbertsio gordinaren erritmoa, nahiz eta inbertsio-erritmo horrek ez duen ekarri produkzio-kapitalaren *stocken* beherakadarik, salbu eta salbuespen batzuetan, hala nola EAE espezializatuta dagoen aurreko industria-garapenaren oinarria osatzen duten produkzio-jardueren adarrekin lotutakoetan. Inbertsio publikoek eta sektore pribatukoek portaera desberdinak izan dituzte, eta bigarrenak azkarrago egokitu dira krisiaren eraginetara. Zehazki, Hezkuntza Publikoko eta Osasun Publikoko kapital-*stocka* nabarmen hazi zen 2012. urtera arte, eta hortik aurrera beheranzko bidea hartu zuen. Era berean, krisitik aurrera, EAEn are apustu handiagoa egin da bere produkzio-prozesuetan azpiegitura teknologikoagoak tzertatzeko, hala nola, IKTak eta berrikuntzarekin edo ezagutzan oinarritutako ekonomia berriarekin zerikusia dutenak, nahiz eta oraindik Europako batzbesteko maila erlatiboetara iritsi ez.

ERALDAKETA DIGITALA

Agustín Zubillagak eta **Iker Pastorrek** ikerketa enpiriko baten emaitzak eskaintzen dituzte, euskal ekonomian krisiaren amaieratik, 2013tik 2017ra arte, ekointzitateko digitalizazio-mailari buruz, intentsitate digitalaren bidez neurtua lau dimentsio/aldagaitan oinarrituta (produkzio digitala, kontsumo digitala, salmenta

digitalak eta IKTetako espezialisten kopurua). Emaitzak erakusten du digitalizazioa heterogeneoa dela euskal ekonomiaren jarduera-adarretan, bilakaera-eredu desberdinekin: alderdi digitalak garrantzi handia du manufaktura aurreratuari lotutako industrian (makineria, material eta ekipo elektrikoek fabrikazioan); eta adierazten du indartu egin behar direla digitalizazio apaleneko jarduerak digitalizatzeko estrategiak: lehen sektorea, ostalaritza, garraioa eta biltegiak edo elikagaien industria.

* * * * *

Aurkezpen hau ixteko, azken mezu bat: datorren hamarkadan aurre egin beharko diogun erronka da euskal ekonomiaren oinarriak eta oparotasun-ibilbideak ezartzea datozen 50 urteetarako. Hemen eta orain egiteko aukerak erantzukizun handia eskatzen du, baita herrialdeko eragile ekonomiko eta sozialen parte-hartzea ere. Eskatzen du balioa alderdi kolektiboari ematea, «ekosistemari», eta ez «egosistemari». Eskatzen du etorkizunaren abokatu izatea eta horren arabera jardutea, erantzukizun indibidual eta kolektibotik abiatuta. Exijitzen du inbertsioa berreskuratzea eta eskuragarri dauden baliabideak ahalik eta gehien aprobetxatzea, koherentziaz eta irimotasunez bat egiteko etorkizuneko erronkekin, eraldaketarako eta oparotasun jasangarrirako palanka gisa jarduten duten heinean.

Jordi Campàs Velasco

Ekonomiaz Aldizkariaren Zuzendaria